

Emakumea erlijioetan

De un modo u otro, la mujer y los valores femeninos han estado siempre presentes en la historia de las religiones, desde antes de las divinidades femeninas del Panteón clásico hasta las mujeres santas y místicas, o las organizaciones religiosas femeninas. Sin embargo, de ordinario, la igualdad de género en la vida institucional religiosa ha sido negada o relegada, según los casos, a una segunda o tercera categoría. Es este uno de los grandes errores de la Historia religiosa.

Emakumeak eta emakumezkoen balioek Erlijioen Historian nolabaiteko bitzta izan dutela ezin ukatua da (jainkosak, santak, serorak, lekai-meak, mirabeak), baina historia argi horrek ilundura goibelak ditu, bere ukazioekin, bazterkeriekin, ezberdinkeriekin. 1960ko hamarkadan hasita, feminismoak oro har eta teologia kristau feministak (M. Daly, 1968) asko erakutsi digu, eta garai batean baino ohartuagoak gaude orain okerkeria historiko horretaz.

Iragana gogoratzen

Emakumearen eta emakumezko balioen Historia egitean, beste alor askotan bezala, Historia oso kontrajarriak idatz ditzakegu Erlijioen historian ere.

Halako batek nahiago izango du historia *argitsua* eskaini, alde onak eta lorpen jatorrak dituen: jainkotasunari berari emakume-aurpegi ematen diona (Egiptoko Isis, Erroman Juno, zelten artean Epona, etab.), emakumezko elkar-te biziak dituen, santa eta idazle bikainak... Horrelakoak nahiago du alde ilunei ez-ikusit egin.

Bigarrenak, ordea, lehenik hutsuneak ikusiko ditu edo errakuntza larriak: Jainkoari berari eman izan zaizkion gizonezko izaera-aurpegiak, emakumezkoetan gabeak, erlijioetako erabateko gizonezko nagusitasuna, emakumearen bazterketa, ukazioa edo betiko bigarrenatasuna.

Lehenengo historia hura egia da, baina bigarrena ere bai. Hor dago kokxa!

Gaur egun adoretu ari dira Erlijio ezberdinetako pentsalari feministak Erlijioei aurpegi eta izaera berritu nahirik, erlijiotasuna guztiona izan dadin, gizon-emakumezko pentsaera-sentieriek dagokien leku parekidea izan dezaten, teorian (teologian), antolamenduan, agintean, ardura-erantzukizunetan, erlijiotasunaren bizieran.

Erlijioaz arduratu diren feministek alor emankorra aurkitu dute norberaren Erlijioaren iragana aztertu eta emakume erlijiosoari zor zaizkion begiramen-lekuak egiten. Hala ari da gertatzen kristautasunaren bezalatsu islamean edo budismoan, adibidez.

Erlijioetako emakume-“arazoa” jainkotasuna ulertetik bertatik hasi zen. Kristauen Jainkoa zer eta nolakoa da, gizonezko Aita ala emakumezko Ama? Kristauek Bibliatik eta Jesus historikoaren gizonezko izaeratik ulertu ahal izan dute Jainkoa, eta Jainkoarekiko antropomorfismo horrek (Jaionkoa gizaide gisa ikusteak, esan nahi dut) sakonki lagundu du; baina, gogoetaren ibilian, genero-bikoiztasunaren mugatasun-aberastuak ez ditu behar bezala gogoan hartu.

Feminismo kristau-erlijiosoak Erlijioen gizonezkotasunera lerratze zaharra zuzendu eta osatu egin nahi du, asko baitago zuzentzeko. Barrunta daitekeenez, ez da bakarrik emakumea apaiztu ahal izango den ala ez, sakonagoko arazoak daude mahai gainean. Hasteko, kristau teo-



logari handiek eta tradizio ezagunenak emakumeaz pentsatutakoa berrikusi beharko da, gutxi-gutxienez San Agustiniengandik hasita. Gaiaz bil daitekeen testu-antologiak lotsagarri ere utz dezake tradizio hori.

Abiapuntu berrietatik aurrera

Gizonezkotzat ikusi izan dugun *Ortzi* handiaren ondoan, euskal jentilek *Ama Lurra*, *Mari* edo *Ilargi* emakumezkoak utzi zizkiguten, aurreko irakurgai batean ikusi genuenaren arabera (*Arantzazu*. 1912ko uztaila). Gure jentilek *Kixmi* deitu omen zuten Kristo-rekin bateratsu etorri zen gure artera *Maria* birjina, hainbat ermita kristautzeko balio izan duen Andre Maria.

Martirietatik hasita (San Esteban-en hilobiarren aurkikundea, 415), Kristau-herria Elizako santuen zerrenda osatuz joan da (*santorala*), eta geroztik oroitzapen oneko haiei gurtza berezia eskaini die Elizak, laudoriozko bizitzak idatzi eta aldareetara eramanez. Mendebaldeko artea bera ezingo litzateke ulertu, bere altxor historikoan, santuen erreferentziarik gabe, ezta Elizak garai bakoitzean aurkeztu nahi izan duen santutasun-eredu eliztar eta soziala ere. Zeresan handikoa izan da hori Historian.

Eta santuen artean, *santak*: emakumezkoak esan nahi dut. Emakume hautatuak, eredugarri izan behar zutenak, Ebanjelioari jarraituz garaian garaiko mentalitateetara moldatuak, santu izateko ere modu ezberdinak egon baitira mendeetan zehar. Santutzat aitortutako emakumeak gizonezkoak baino askoz gutxiago dira, noski, horretan ere galtzaile izan baitira emakumeak.

Hala ere edo horregatik, feminismoak aztergai jakingarria aurkituko luke emakumeen garai bateko hagiografian eta Aro Modernoetako emakumeen kanonizazio paperetan. Izan ere, arrazoren batengatik edo bestegatik nabarmendu diren emakume kristauak ugariak dira Elizaren

ibilian, batzuetan ekintzaren jardunean ibili direlako, bestetan pentsalari nahiz mistikari bezala.

XX. mendeko 1930-1970. urteetan jaiotako teologari feministek eman diote bultzatu berria teologiari oro har eta emakumetasunaren teologiari: izan aipagarriak ez dira falta: A. Berlis, I. Fischer, E. Schussler, etab.): ekarpen onak egindako ehunen bat emakume pentsalari bildu ditu X. Pikazak bere hiztegi biografikoan (2007).

Bestalde, Eliza katolikoan, ugariak izan dira emakumeen eskutik sortutako Institutu Erlji-osoak, eta berorietan agintea eta gidaritzza izan dituztenak. Beharbada, hauxe da Elizan emakumeari utzi zaion aginte-eremu bakarretako bat, baina hori ere gizonezkoen zaintzapena.

Eliza kristauen iraganak, oro har, bizitza pastoralala, gobernua, ekonomia eta gidaritzza gizonezkoentzat gorde izan ditu, emakumeei ateak bigarren mailako zerbitzuetarako zabalduz. Errakuntza latza izan da hori, eta, gutxienez, galera hagitz kaltegarriak ekarri dituena.

Emakumeen apaizgorako bidea urratzea zaila izan da azken hamarkadetan, nahiz eta pausoak ere eman diren: Eliza Metodistak 1956-an apaiztu zuen lehenengo emakumea, eta Eliza Anglikanoak 1993an. Eliza katolikoan eztabaida zerbait irekitzen ari zenean, Joan Paulo II.ak itxi nahi izan zuen ahalbide hori (1995); hala ere, gogoetak eta iritzi berritzaileek badute oraindik lekuri teologariaren eta hierarkiaren artean (Lisboa ko kardinalaren azalpenak, adibidez, 1913).

Dena den, bidea luzea izango da gizonezko-tasun ahots-bakarra dagokion lekura ekarri arte, eta Elizaren antolamendu osoan emakumeak izan dezakeen eta behar duen zeregina osorik onartuta ikusteko. Azken buruan, fededunen gogoak eta eliz premiek aginduko dute seguras-ki, eztabaida teorikoek baino harago.

Joseba Intxausti